


# AURKEZPENA

Gu IEPA taldea gara; lune, Naiara, Nerea eta Lorea. 1.batxilergoan amestu genuen proiektu bat gauzatzea dugu pentsatuta, orain lanarekin eta daukagun bizimoduarekin gaztetako amets hura egi bihurtzeko asmoarekin. Gaur egun moda gazteen artean pil pilean dagoen gaia da, izan ere, gizarteak jartzen dituen estereotipoen menpe gaude eta haiek zaintzea "behartuta" bizi gara. Gure herrialdean kontsumoa oso altua da, Asociacion Iberica De Reciclaje Textilek (Asirtex) dioenez, pertsona bakoitzak urtean 34 jantzi erosten ditu eta 12-14 kilo bota, batzuk erabili gabe.

Gure gaztaroan, goizero esnatzeak eta zer jantziko genuen pentsatzeak nagitasuna sentiarazten zigun, orain bezalaxe. Horretaz gain, jantzen ez genuen arropa asko geneukan eta egunero berdina erabiltzen genuela konturatu gara. Hau dela bide, arropa aukeratzeko duen eta bertan arroparen salerosketa edukiko duen aplikazio bat sortu nahi dugu.



Hori horrela, eskuarte dugu proiektuaren helburua, armairura goazen momentuan jantzi behar duguna ez pentsatzea, egunero soinean zerbait desberdina eramatea eta jantzi nahi ez dugun arropa saltzea da. Helburua atxikitzeko, gure aplikazioan algoritmo batzuk erabiliko ditugu egunero arropa multzo desberdin bat ipintzeko, egunean zehar egingo dituzun

ekintzen arabera, familiako bazkari bat, ezkontza bat, mendira txangoa, esate baterako. Gainera, zerbait gustuko ez baduzu edo txikia geratzen bazaizu aplikazioak berak saltzeko aukera emango dizu. Bestalde, zure estiloa zein den jakingo duenez, bertan beste pertsonen saltzen dituzten eta zure estilokoak diren arropak erosteko aukera ematen dizu.

Aplikazio honekin lortu nahi duguna, gaur egun dagoen gehiegizko kontsumoa gutxitzea da. Gure herrialdean botatzen diren 12-14 kg horiek murrizteko, bigarren eskuko merkatuan saltzeko aukera ematen dugu eta dituzun arropa guztiak jantzeko ere bai.